



LAZKAOKO  
UDALA

**2022KO MAIATZAREN 23KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hogeita hiruan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertarutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertarutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuraren akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 24 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA BERROGEITA LAU MILAHIRUREHUN ETA BERROGEI euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimo (144.340,50 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- OROBIONE TABERNA-JATETXEAREN ERRENTAMENDU-KONTRATUAREN ESLEIPENA.-**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Jubilatu eta Erretiratuen Orobione taberna-jatetxea errentamenduan emateko kontratazio espediente eta lizitazio deialdia egitea onartu zuen.

Iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta proposamenak aurkezteko emandako epean, proposamen bakarra aurkeztu da, Ramona Roxana Raduk, IFK X8471541C, aurkeztutakoa.

Aurkeztutako proposamenak baldintza plegua betetzen duela baieztatu ondoren eta lehen sailkatu gisa esleipena egin ahal izateko jarri beharreko fidantza eta gainontzeko dokumentazioa aurkeztu duela ikusita, esleipena bere alde egitea proposatu du kontratazio mahaiak.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Jubilatu eta Erretiratuen Orobione taberna-jatetxea errentamendu kontratua Ramona Roxana Raduri, IFK X8471541C, esleitzea erabaki du. Esleipen prezioa urteko ZORTZI MILA euro (8.000 €) da eta kontratuaren epea 4 urte, beste urte betez luzagarria.

**IV.- ARERIAKO ZINEMA ETA IKUSKIZUNEN ARETOAREN ZERBITZUEN KONTRATAZIO ESPE-  
DIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA .-**

Arieriako zinema eta ikuskizunen aretoan zerbitzuak emateko gaur egun dauden bi kontratuak, bata zine emanaldiak emateko eta bestea zinea ez diren beste ikuskizunetan laguntza teknikoa emateko, 2022ko irailaren 6an eta 2022ko irailaren 12an bukatuko dira, hurrenez hurren.

Hau horrela izanda, udal zerbitzu teknikoek zerbitzu hauek berriro kontrataziora ateratzeko baldintza tekniko eta administratiboak eta kontratazio espedientea prestatu dituzte.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia azertu ondoren, aho batez, erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- Arieriako zinema eta ikuskizunen aretoan zerbitzuak emateko kontratazio espedientea eta honek barne hartzen dituen baldintza teknikoen eta baldintza administratiboen pleguak onartzea.

Bigarrena.- Lizitazio deialdia egitea iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuz.

#### V.- EUSKARAREN SUSTAPENERAKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK DE DEIALDIAK.-

Norgehiagoka-erregimenean euskararen sustapenerako dirulaguntzen oinarriak eta 2022rako deialdiak aurkeztu dira bere onarpenerako.

Euskararen sustapenerako dirulaguntzen oinarri hauek bi jarduera hartzen dituzte bere barnean, bata euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzak eta bestea gida baimena euskara ateratzeagatik dirulaguntzak.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du beraien iritziz euskara eskoletara joateagatik dirulaguntza unibertsala izan behar duela eta oinarri hauekin ez dela horrela eta horren aurrean beraiek abstenitu egingo direla.

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzios (EH Bildu) honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehena.- Euskararen sustapenerako dirulaguntzen oinarriak hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrena.- Onartutako oinarriak jendaurreko erakustaldian jartzea 30 egun balioduneko denboraldian.

Hirugarrena.- Jendaurreko erakustaldian inolako erreklamazio edo alegaziorik ez badago, hasierako onarpena behin betiko hartutzat joko da.

Laugarrena.- 2022ko euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzen deialdia eta gida baimena ateratzeagatik dirulaguntzen deialdiak onartzea.

#### VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:





Amalur mendi elkartea.-

Amalur mendi elkartearen izenean Imanol Lasa Esnaola, martxoaren 15etik 18ra gauzatutako Lazkaoko III. Mendi Astearen antolakuntzarako babes ekonomikoa emateko egindako dirulaguntza eskaeraren aurrean MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (1.250 €) euro dirulaguntza ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuko 1 481.01.341.00 partidatik ordainduko da.

VII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura batzordearen proposameneren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

- 2022ko San Prudentzio festetan eragile ezberdinek antolatu dituzten emanaldien gastuei aurre egiteko:

Danak Elkartea.-

Toka txapelketa antolatzeagatik 625 € ematea.

Lazkaoko Musika Banda.-

Festatan emandako saioengatik ordaindutako maiatzaren 1eko hamaiketako 83,05 € ematea.

Mikel Insausti Garmendia.-

Esku pilota txapelketa herrikoia antolatzeagatik 842 € ematea.

Lazkaoko txirrindularitza kirol kluba.-

Lazkao eta Lazkaomendiko frogak antolatzeagatik 7.446 € ematea.

Dirulaguntza hauek aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik ordainduko dira.

- Lazkao Txiki Musika Eskolak 2022ko martxoan antolatutako aste kulturala dela eta, 4.872,34 ematea.

Dirulaguntza hau aurrekontuko 1 480.01.334.00 partidatik ordainduko da.

- San Benito Ikastolari, mantentze gastuetarako eta jarduerak aurrera eramateko izenpetutako hitzarmenen arabera dirulaguntzen lehen zatia orain ordaintzea. Orain ordainduko zaizkion zenbatekoak hauek dira: 11.500 € mantentze gastuetarako eta 17.000 € jardueretarako.

Ordainketak aurrekontuko partida hauetatik egingo dira:

- 1 481.02.326.00 partidatik, mantentze gastuetarako.
- 1 481.02.323.00 partidatik, jardueren gastuetarako.

### VIII.- JARDUERA EKONOMIKO ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik merkatariei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hau hartu du:

- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea proposatzen da:

<b>Merkataria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	2.460 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	1.895 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	4.390 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.000 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	2.375 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.310 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	1.025 €
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	2.355 €
AINITZE KORTA MENDIZABAL (MISZELANIA)	560 €
AINITZE KORTA MENDIZABAL (MISZELANIA)	180 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	850 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	950 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (GUREA)	165 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	550 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	500 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	420 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	320 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>23.305 €</b>

Ordainketa hauengatik udalari dagokion gastua aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

### IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esan du futbol zelaiko belarra aldatzeko obraren kontratazio espedientean aurkeztutako proposamenen artean lehen sailkatuari kontratua esleitzeko behin betiko fidantza jartzeko eskatu zaiola eta egun pare batean jarriko duela aurreikusten dela.

Fidantza jartzen duenean eta obra lehenbailehen has dadin, esleipena egiteko, hemendik hamabost egunera egingo den tokiko gobernu batzarrerara eraman beharrean, alkatearen ebazpen bidez egingo duela esan du eta hurrengo tokiko gobernu batzarrean emango dela esleipen horren berri.

**LAZKAOKO**

**UDALA** Tokiko Gobernu batzarra jakinaren gainean gelditu da.

### X.- BILERAREN AMAIERA.-



LAZKAOKO  
UDALA

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

